



URDAIAZPIKOA PUNTUAN BADA... HOBE

Joxe Mari Barriola urdaiazpiko ebakitzailak bere lanaren berri eman dio HITZARI; «lanpetuta» dabil sasoi honetan » 2

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2009-07-21

VIIURTEA 1.759 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Txintxarriaren erreketarekin amaitu dira aurten ere karmenak; jendetza ibili da jaietan. HITZA

GERO ETA FESTA GUTXIAGO... BAINA MAKINA BAT ORAINDIK

TOLOSALDEA Uda aurrera doa, baita eskualdeko festen zerrenda ere; asteburu honetan, besteak beste, karmenak agurtu dituzte Alegian 4



Leaburu-Txaraman herenegun Otegiren argazkiak kendu zituzten berriz. HITZA

Euskal presoen argazkiak kentzeari ekin dio Ertzaintzak

TOLOSALDEA Amnistiaren Aldeko Mugimenduak «ertzainek Villabonan gazte bat jipoitu eta atxilotu» zutela salatu du 5

Xabi Fernandez hamargarren izan da 49er munduko txapelketan

IBARRA «Helburuak bete» dituztela esan du ibartarrak txapelketa amaituta 6

Itziar Albisua margolariaren lanak ikusgai Lanbroa tabernan

TOLOSA Uztailaren bukaerara arte daude ikusgai Zumarragakoaren lanak 3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**
bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leizta

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N.A.:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa. Datu Pertsonalak Babesteko, betetarik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-en fitxategi automatizatuetan batera pasatuko direla, enpresak dituen eskaintzen berri emateko, Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezetzatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzeko. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.M.- Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa, edo harpidetza@hitza.info

informazioa



HITZARI buruzko informazioa

Langileen
udako
oporraldia
dela-eta

HITZAren azken alea uztailaren 26an argitaratuko da. Egunkaria berriro izango da zuen etxean irailaren 2an.



Zerbitzu bikaina eskaintzen du Barriolak eta bere taldeak; urdaiazpiko onenak eta batez ere «ikuskizuna». HITZA

Joxe Mari Barriola eta bere lan taldea lanpetuta dabil hilabete hauetan, euren «ikuskizuna» eskaintzeko garaia da; urdaiazpiko onak era egokian mozteko ikuskizunaren hilabeteak ditugu aurretik.

Puntuana bada, hobe

REBEKA CALVO

Fronton Jatetxean egin ginen Joxe Mari Barriola ibartarrarekin hitzordua. Izan ere, «langehien» duten garaia da hau; «ezkontzen, jaunartzen eta terrazen garaia», hain zuzen. Ferietako salerosleen moduan batetik bestera ibiltzen dira Barriola eta bere taldeko urdaiazpiko ebakitzaila profesionalak, «maestros cortadores», alajaina!

Fronton Jatetxean hiru egune-ko ikastaroa eskaini du Barriolak, «urdaiazpikoa nola moztu behar den, nola tratatu behar den, nola aurkeztu behar den...». Urdaiazpikoa ulertu ere egin behar da eta, ez da nahikoa pieza ona hartu eta edozein modutan moztzen hastea, fin-fin bada ere. Txerria zein ani-

malia mota den ere ulertu behar da ondoren urdaiazpikoa ondo mozteko; bere ezaugarriak, arraza desberdinak —galegoa, zelta, arabako edo Murziako *chato*ak, Burgoseko *lermeñoa*, txerri beltz kanariarra...—, hazteko moduaren arabera txerri motak, nola ontzen den urdaiazpikoa...

Profesionalen zuzendutako ikastaroak

Horiguztia da Barriolak ikastaroe- tan erakusten duena, nahiz eta desberdina den tailerra batzuri eman edo besteri: «Desberdina da profesionalen zuzenduriko ikastaroa edo etxean bakoitzak mozteko jakin beharrekoak erakustea. Txerriaren jatorria, noiztik dagoen onduta urdaiazpikoa, nola garbitu,

nola preparatu mozteko... eta azkenen nola moztu erakutsi ohi dut, hala ere. Baina hori ikasteko egin eta egin egin behar da, ez dago beste modurik». Praktika, azken batean.

Behar bada horregatik aukeratu zuen lanbide hau, gurasoen haragetik ere nahikoa praktika bazuelako: «Gurasoen haragetik dator kit labanekin dudaren abilezia. Baina orain hamar bat urte joan nitzin Argiñanoren Aiala sukaldaritzako eskolatik Madrilera Lezama enpresarioarekin, han *delicatessen* bat jarri nahi zuen eta. Ni hori martxan jartzera joan nintzen eta handik hasi zen kontu hau guztia. Hemen arlo horretan hutsune handia zegoela iruditu zitzaidan eta horregatik erabaki nuen honekin

hastea. Kontua da horrelako zerbitzu egin nahi zuten guztiek Madriletik edo Gaztela ingurutik etorri behar zutela eta nik zerbitzu hori erraztu nahi nuen; jatetxe batek behar bazuen hemen bertan norbait egoteko».

Mito asko; jatorria, mozteko era...

Urdaiazpikoen eta berau mozteko era ezberdinen inguruan, hala ere, mito asko dago.

Urdaiazpikoen jatorriarekin zerikusia dutenak badaude, esate batarako: «Hemen Euskal Herrian beti egon da urdaiazpikoa, txerri txuria egon izan da, hori bai. Hiru arraza daude eta orain hasi dira batzuk euskal txerria berreskuratzen, tartean Bidaniko Pello Urda-pilleta. Lekunberrin ere Maskarada izenarekin badago euskal txerriak hazten dituen beste bat eta Iparraldean ere Pierre Oteiza horretan ari da. Hemen Arabako *chato* deritzon txerria ere bage-nuen... Eta ez dute iberiko arrazaren inongo inbidiarik».

Hori bai, gure klima ez da urdaiazpikoak ontzeko egokiena:

«Hezetasuna dugu, euria, bero handirik ez... Ez da lekurik proposena. Hemengo, gainera, gazi-goi izan da beti; izan ere, gatza askorekin produktua ez baita useltzen. Hegoaldean, ordea, heze-

Klimak zerikusi zuzena du urdaiazpikoan; bere puntuana dastatzeko 26 gradu behar ditu

tasuna eta tenperatura egokiagoa da eta goxoagoak dira, gehiena iberiko arrazakoak dira, gainera».

Klimak zerikusi zuzena du urdaiazpikoan: «Honen inguruan badago esaera bat ere: *Un jamón mediocre en el sur es un gran jamón, un mediocre gran jamón en el norte es un mediocre jamón*. Zergatik? urdaiazpikoa bere puntuana dastatzeko 26 gradu behar dituelako, baina hemen beti hotzago egoten gara. Klimak ere eragiten du, asko gainera».

Bada beste mitorik ere; xerren lodierarena. «Xerrak lodixego moztea, gaizki moztea al da? Ez dakit bada! Nafarroan adibidez jende askok eskatzen dit lodiagoa mozteko, bakoitzak aukeratu du. Ez dago inon idatzia horrela izan behar duenik. Garrantzitsuen urdaiazpikoa ona izatea da eta baita bere memento onenaren ego- tea ere. Zuri plater bat bere puntuana moztuta, era egokian moztuta, etortzen bazaizu lodierak ez dauka horrenbesteko garrantziarik; aurrekoa ere kontuan hartu behar da, gainera; txerriaren haziera, arraza non egon den...».

Zein da orduan urdaiazpiko on bat dastatzeko sekretua? «Moztu berria egotea, lehortu egiten da bestela», agertu du maisuak.

ISO 9001:2000

Sei lagun profesionalen osatzen dute Barriola Maestros Cortadores taldea eta munduan lehenak dira, gainera, ISO 9001:2000 agiria lortu dutenak.

«Esfortua egin dugu eta lortu dugu. ISO guztiek zerbitzuaren kalitate ona egiaztatzen dute. Orainxe beste urtebeteko auditoria pasa dugu, hiru urterako balio du». Izan ere, Barriolak argi utzi du behin eta berriz, ez direla denborapasan ibiltzen, lana profesionalki egiten dute eta horregatik dute ISOa, hain zuzen.

Behin urdaiazpiko ona dastatzeko, iberikoa bada hobeto, lodierak ez duela horrenbesteko garrantziarik jakinda eta benetan ezinbestekoa mementoan moztuta jatea dela, jatekoa zein edarirekin busti behar den ere jakin nahi izan dugu: «Hoberena manzanilla edo jerez ardoa dela esaten dute, baina hori ere bakoitzak ikusi behar! Guk dena den, badugu manzanilla zerbitzatzen duen pertsona bat. Benentziazten aditua den profesionala».

Urdaiazpiko «bikainak», zerbitzu ona eta batez ere, «ikuskizuna» eskaintzen dute Barriolak eta bere taldeak.



Bodegoiak, paisaiak, panoramikak,... marraztu ditu Zumarragako artistak; hilaren amaierara arte egongo dira ikusgai. N. LATABURU

«Kuttunenak» hormetara

Kultura » Zumarragako Itziar Albisua artistaren koadroak ikusgai daude hilaren bukaerara arte Lanbroa tabernan.

NOELIA LATABURU

Kultur guneak zabalduz doaz Tolosan. Gero eta taberna gehiagok erabiltzen dituzte euren hormak artelanak erakusteko. Lanbroa aitziandaria izan zen horretan, eta artista askoren lanak ikusi dituzte bezeroek ekimen honi esker.

Egunotan, eta hilabetearen amaierara arte, gerturatzen denak ere Itziar Albisua artistaren koadroez gozatzeko aukera izango du. Zumarragakoa da Albisua eta Tolosako tabernarako aukeratu dituen lanetan bodegoiak, loreak, paisaiak, panoramikak,... ikus dai-

tezke batik bat. Uztailaren amaierara arte izango da horretarako aukera.

Koadroetan ikus daitekeena

Txixti Orbegozoren bitartez hasi zen Albisua Tolosara bere lanak ekartzen. «Jaz berarekin hiru eguneko ikastaroa egin nuen eta berari esker martxoan Itaie tabernan jarri nituen nire collage-ak», dio artistak. Espazioak erakusketaren nondik norakoak aldatzen dituela ere azaltzen du Albisua. «Taber-

nara moldatu behar dituzu lanak, Lanbroak kolorea behar zuen eta nire lanek hori erakusten dute; halaber, erakusketak txikia izan behar du». Horregatik, bere bildumako formato txikiak hautatu ditu tabernarako, 2000-2003 arte bitartean egindakoak. «Nire kuttunenak dira, oso bereziak dira niretzat, eta taberna janzten dutela iruditzen zait, harro nago», aitortzen du Zumarragakoak. Hain zuzen, lan hauek bigarren aldiz aurkeztu ditu oraingoan.

«Neguko barruko lanak ikus daitezke Lanbroan; fondo ilun batean loreak, eraikitako bodegoiak,...». Kanpoan eginiko lanak ere erakusten ditu Albisua. «Ikarragarri gustatzen zait kalera atera eta bertan ikusten dudana margotzea; bizitzan ditugun uneak espresatzeko beharra izaten dut».

Koadroak salgai ere badaude. Artistaren ustez, koadroak ez ditu margolariak berak amaitzen; ikuslearen begiradak «jarraipena ematen dio zuekin duzun lanari».

Koadroetatik haratago, artistaren lana

«Langilea eta ama izanda» margotzeko nahi adina denbora ez du Albisua, baina lan ugari egin ditu dagoeneko, eta hauetariko batzuk erakutsi ditu gainera. «Gauza bat da margotzea eta bestea marketing-a; lotsatiagoak garenoi gehiago kostatzen zaigu, hau ere ikasi egin behar da».

Bere buruari «asko exijitzen» dion horietakoa da Albisua; «oso gutxitan geratu naiz ehuneko ehunetan konforme baina lanak bukatzen ere jakin behar da eta hauetatik ikasten etorkizunerako».

Albisua 1997an jaso zuen bere lehen saria Zarautzen, baina txikitatik hartu zituen margoak eskutian. Horretaz gain, keramika eta eskultura ere landu dituela dio.

«Ama eta anaia ere margolaritzari lotuta egon dira; ez da harriztekoa, beraz, artelanetarako duen abilezia. «Libreki aritzea gustatzen zait batetik eta irakasle asko ezagutzen ere gustatzen zait, bestetik, guztietatik ikasten duzu», aitortzen du.



Ezkerrean, Alegiako IV. Txintxarri Harri Txapelketako irabazleak. Eskuinean, haur jolasak herenegun. PATXI RENOBALDES

Asteasuko Santa Marina auzoan, Albizturkoan eta Alegian bertan pasa den egun hauetan jaiak izan dituzte; hiruetan ere pozik egoteko arrazoiak dauzkate, parte-hartzearengatik batik bat.

Jai jendetsuak izan dituzte

NEREA URBIZU

Santamañak eta Karmen jaiak bakatu dira: antolatzaile guztiak «pozik» daude aurtengo emaitzeekin ere, jendea kaleetan ikustea erraza zelako alde batetik, eta bestetik, sortu den giroa sanoa, ona izan delako.

Ikusten denez, egitarauko gauza oso gutxi aldatuta, asmatu dute aurtenera Alegian. «Jendeak ederki erantzun du ekitaldi guztietan eta herrikoez gain, kanpoko jende asko ere ibili da herrian». Aurtengo bitxikeria udaletxeko herri afariarena izan da: 180 lagunek (hauetatik ia 30 lagunek menu bejetarianoa aukeratu zuten) ostiraleko euri-jasarengatik afaria udaletxearen barruan egin zuten. Arkupeetan batzuk eta beste batzuk berriz, udaletxeko pleno aretoan eta honek kanpoaldean. «Ez dainoiz gertatu ostiralekoa».

IV. Txintxarri Harri Txapelketako giroa azpimarratu dute batzuk, beste batzuk herri afariakoa, eta nola ez, plazako kontzertuetakoa beste batzuk. «Delorean kontzertuan jende asko gerturatu zen. Herri kiroletakoa arrakasta handiena izan duena izan da».

Aurtengo egitarauan haur eta gaztetxoek bazkaria zen berria eta datorren urtean berriz egiteko asmoa erakutsi dute antolatzaileek: «Haurrak bezala, gurasoak ere pozik zeuden».

Mariatxien kontzertua izan zen herenegun eta bertara ere jende asko hurbildu zen. Askok jotzen zituzten kanta gehienak jarraitzeko gai ziren eta horretarako bidea ematen zuten. Arratsaldean haurrentzako tartea ere gorde zuten, jolasak baitzeuden beraiantzat

prest. Bestela, «txintxarriaren erreketak ez zuen beste urteetan bezainbesteko jendea bildu».

Puntako harri-jasotzaileak

Irigoienek, Goenatxok eta Bertizek osatutako hirukoak irabazi zuten IV. Txintxarri Torneoaren Ize-tarrak mendean hartuta. Jendetza batu zen Larraizko plazan. 125 kiloko zilindro kopa izan zuten lehenik, eta bertan Izeta II.a eta Irigoien neurtu ziren. Garaileek honetan lortu zuten lehen alde. Errezildarrak 28 aldiz berdindu zuten harria bizkarrean, eta 27 jaso zuten aiarrak.

Hirugarren ekinaldian Bertiz eta Izeta III.a neurtu ziren. Bakoi-tzak 100eko zilindro zaharra izan zuten aurrean. Biek 27na jasoaldi egin zituzten. Bukatzeko, hirunaka neurtu ziren txanda librean, eta 100 kiloko bolarekin aritu ziren; Irigoien, Goenatxo eta Bertiz edertki aritu ziren taldean, bolari 53 jasoaldi emanaz. Aurkariek amaieran 49 jasoaldi egin zituzten. Guztira, Irigoien, Goenatxo eta Bertiz izan ziren garaile 13.412,5 kilo jaso-ta. Izeta sendiak, berriz, 13.000 kilo berdindu zituen.

Gipuzkoako Lasto-altxatze Txapelketan Arregi izan zen onena 15 jasoaldi emanda. Bigarren Argia sailkatu zen 13 jasoaldirekin. Hirugarren Mugartegi izan zen 11 jasoaldirekin.

Zaldi lasterketa, ikustekoa

Asteasuko Santa Marina auzoan IX. Zaldi Lasterketa egin zuten eta Txomin Zubia zumaia irabazi zuten, probako helduenak, hain zuzen. Bigarren Isabel Landa donostiarrak burutu zuen lana purasan-



Asteasuko Santamaña auzoan jende asko bildu zen: eguraldi ia ezin hobea izan zuten bertaratu zirenek. SARA GOMEZ



Goian, Arianne Isasi amorebietarra. Bi emakumek hartu zuten parte beste 9 gizonekin batera. SARA GOMEZ

greingeles batekin. Imanol Olanok zaldi txikianarekin hirugarren postua lortu zuen, eta laugarren, herriko Jon Lizasok egin zuen zaldi angloabiarrarekin.

Santamaña elkarteak bazkideak «gustura» daude aurtenera, sortu den giroarengatik eta parte hartu duten kopuruarengatik ere. Aurtenera 11 zaldun hurbildu dira Asteasura. Hauetaz gain, ikustera jende mordo gerturatu zen goiko auzora. Handik pasatzea besterik ez zen behar, auto kopurua handia zen inguruetan. Ondoren, musika ere izan zuten Santamañan, festei bukaera ona emateko.

Albizturren bertsolariak

Albizturko Santa Marina auzoan ez zuten herri kirol saiorik ikusteko aukerarik izan, baina bai bertso saio aparta. Bertso-trama izan zen Sustrai Colinarekin eta Aitor Sarriegirekin. Dj Bertsok ere giro aparta sortu zuen arratsaldean. Jende asko hurbildu zen bertara, bai bazkaltzeko garaian eta baita afaltzeko garaian ere, batzuk afaltzeko asmoarekin eta beste batzuk zerbaithartzeko asmoarekin.

Eskualdean ere presoan aldeko argazkiak kentzen ari dira

Politika » Herenegun, Villabonan Ertzaintza pankarta bati argazkiak ateratzen ari zen eta lagun bat atxilotu zuen «desobedientzia» egotzita.

ENERITZ IRAOLA

Duela aste batzuk Eusko Jaurlaritzak euskal presoan aldeko argazkiak kentzeko erabakia hartu zuen. Ertzaintza hasi da dagoeneko agindua betetzen. Honen ondorioz, hainbat gertakari izan dira eskualdean asteburuan.

Leaburu-Txaramako ezker abertzaleak Andoni Otegi euskal presoaren argazkia kendu izana salatu zuen joan den astean. Hurrengo egunetan, presoaren aldeko argazki ugari agertu ziren Leaburuko hainbat tokitan. Herenegun goizaldean, Ertzaintza agertu eta berriro kendu zituen presoaren aldeko argazkiak.

Ibarran ere, herriaren sarreran dauden presoan aldeko argazkiei argazkiak ateratzen aritu ziren Ertzaintzako kideak herenegun goizaldean.

Gazte bat atxilotuta

Bestalde, Ertzaintzak gazte bat atxilotu zuen herenegun Villabonan. Goizaldeko 08:30ak aldean izan zen gertaera, Ertzaintza herriko euskal presoan aldeko argazkiak zaramatzen pankarta bati argazkiak ateratzen ari zenean. Azokaren ondoan dagoen taberna bat jendez gainezka zegoen eta ertzainak ar-

gazkiak ateratzen ari zirela ikusita jendea tabernatik atera zen. Amnistiaren Aldeko Mugimenduak adierazi duenez, gazte talde bat *Non da Jon?* galdezka hasi zitzaion Ertzaintzari. Ertzaintza bertan zegoen gazte batengana hurbildu zen eta «sekulako jipoia eman zion». Ondoren atxiloturik eraman zuten Hernaniko komisaldegira. Gaztea arratsalde partean libre gelditu zen epailaeraren aurretik noiz pasako zain; «desobedientzia eta bi ertzain jo izana» leporatzen diote.

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak eraso hauei guztiei erantzuten jarraitzeko deia egin du. Adierazi dutenez, «*Non da Jon?* Galdezka nahikoa izan daiteke sekulako jipoia jaso eta atxilotua izateko».

«Pello Lizardira»

Tolosako Lizardi Elkarteko kideek elkartearen fatxadan ere jarrita zuten pankarta kendu behar izan zuten larunbatean. Espainiako Auziegi Nazionalak esandakoa betetzera agertu baitziren Ertzaintzako kideak.

Pankarta horretan Pello Odriozola euskal preso eta lizardikide tolosarrari Parot doktrina aplikatu izanaren aurkako mezua agertzen



Ibarran sarreran zeuden herriko presoan aldeko argazkiak kendu zituen igande goizean Ertzaintzak. R. CALVO

zen. Elkartekideen ustez, «pankarta horretan ez da inor goretzen; protesta egiten da».

Pello Odriozolak duela urtebete bete zuen ezarri zioten 20 urteko kondena; eta kalera irten ez zedin

Parot doktrina ezarri zioten, horkarta horretan ez da inor goretzen. «Giza eskubideen urraketa horren aurka protesta egitea zen ke-narazi duten pankartaren helburua», Lizardikoan esanetan.

Elkarteko kideek auzitegiatara joko dute eta helegitea jarriko dute pankarta kentzeko erabakiaren aurka. «Pelloren aldeko elkartaren ekitaldiak biderkatu» egingo dituztelagaineratu dute.



Nahi duzun tokira
eramango zaitugu
uda honetan



GARMIN nüvi 200 GPSa

Harpidedun egin zaituz eta lortu doan GPS hau

- Kioskoan baino %10 merkeago eskuratuko duzu.
- Goizero etxean, lantokian, zure eguneroko kioskoan duzula ziurtatuko dizugu.
- Gure promozioetan (disko bildumak, liburuak, mendiko gidak...) abantaila bereziki gozatzeko aukera izango duzu.
- Astero-astero harpidedunen artean opariak banatzen ditugu.
- Mantangorri larunbatero 16 orrialdeko gehigarri koloretsua haur eta gaztetxoentzat
- NORA bidaia aldizkaria hilabetero BERRIArekin
- ...

Animatu! Merezi du

HARREMANETARAKO:
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria

* Urte osoko harpidetzarako



Lizardiko fatxadan lehen zegoen pankarta eta orain jarri dutena. HITZA/N. URBIZU

Hamargarren egin du Fernandezek 49er munduko txapelketan

Ibarra » Iker Martinez eta Xabi Fernandez kontentu daude igandean bukatu zen Italiako txapelketan egindako lanarekin.

ERREDAKZIOA

Xabi Fernandez eta Iker Martinez kirolariak kontentu daude Italiako Di Garda lakuan bukatu berri den 49er mailako munduko txapelketan lortutako hamargarren postuarekin. Izan ere, mastaberria zuten eta txapelketa hasi aurretik bost egun besterik ez zituzten izan ontzia probatzeko, ondorioz lortutako postua nahikoa da eurentzat.

Azken eguneko lasterketa, igandekoa, 08:30ean hasi zuten. Bi txanda egin zituzten goizean eta

zailtasunak ere izan zituzten iparrereko haizea baitzebilan, azken egunetan bezala. Buiara iristerakoan laugarren ziren, baina beste ontziak oso gertu zituzten. Buiara ukitu zuten azkenean eta epaileek zigortu egin zituzten horregatik, hamaikagarren postura jaitzi zirelarik. Neurria hartu zioten berriz ere eta bosgarren postura igotzea ere lortu zuten, ondoren. Hobetu arren epaileen ontzia jo zuten beranduago eta honegatik ere zigortu behar izan zituzten. Lehen txanda honetan 15. egin zuten azkenean.

Bigarren txanda

Bigarren txandan lana ondo egitea ezinbestekoa zen domina lortzeko, baina ez ziren oso ondo irten eta Xabi Fernandez ia uretara ere



Fernandezek zilarrezko domina irabazi zuen Pekineko Olinpiar Jokoetan. A.I.

erori zen. Seigarren egin zuten. Eguneke eta txapelketako azken proba *medal race*a izan zen. Arratsaldean izan zen eta ordurako ez zegoen horrenbesteko haizerik, hego haizea zen, gainera. Arriskatzeko garaia zen eta egin egin zuten, baina azkenean gaizki aterazi zaien eta buiara iristerakoan azken-aurrekoak ziren. Ingelesek hartu zieten aurrea eta hamargarren egin zuten *medal race*-en, mundu txapelketako sailkapen orokorrean bezala.

Bi helburu

Munduko txapelketa honetan bikoteak bi helburu zituen; flota eta masta berria probatzea, batetik, eta asken sei hilabeteetako lantaldearekin aritzea, bestetik. Bi helburuak bete dituztela esan du bikoteak eta ondorioz, balantze positiboa egin dute. Txapelketa bukatuta opor garaia ere iritsi zaie, irailera arte behintzat, orduan Sail For Gold izeneko txapelketan ariko baitira Weymouthen (Ingalaterra).

San Bartolome jaietako Koadrila Egunerako bilera, gaur 20:00etan

Ibarra » Ibai-gaineko dantza lokalean izango da koadriletako ordezkarien bilkura.

ERREDAKZIOA

Gaur 20:00etatik aurrera, Ibai-gaineko dantza lokalean, abuztuko San Bartolome jaietako Koadrilen Eguneke bazkarirako bilera egingo dute.

Koadrila guztietatik ordezkari-eren bat bertaratzeko deia luzatu dute antolatzailerak.

Txartelak erosteko aukera ostegun honetan

Era berean, etzi, hilak 23, 19:30etik 21:00etara herriko San Bartolome plazan, Koadrilen Eguneke bazkarirako txartelak salgai jarriko dituztela esan dute.

Bazkarirako joateko asmoa duten koadrilek, hortaz, txartela erosibeharko dute ostegun honetan.

Udalak esleitu du jada suteen kontrako doako zerbitzua

Ibarra » A Tiempo enpresak kudeatuko du eta 2011. urterarte 100.000 euro bideratuko dituzte zerbitzu honetara.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak orain aste batzuk iragarri bezala esleitu du hirugarren adineko eta bakarrik bizi diren Ibarrako pertsona ezinduen etxeetan suteak antzemateko zerbitzua.

A Tiempozeneko enpresa izango da programa hau kudeatuko duena eta aipagarria da programaren aurrekontua 99.992 eurokoa izango dela 2011. urterarte. Doako zerbitzu berria irailaren 1etik

aurrera jarriko dute martxan. Udalak esandakoaren arabera, lehenik eta behin, teknikari batek zerbitzu honen onuradun izan daitezkeen pertsonen etxebizitzak bisitatu ahal izateko baimena eskatzen hasiko dira, hau da, «65 urtetik gora dituzten edo ezintasunen bat duten eta bakarrik bizi diren pertsonen» baimena eskatuko diete. Behin baimena lortuta «esleipendun enpresako profesional batek azterlan bat egingo du suteak antzemateari dagokionez zein baldintza dituen egiaztatzeko», argitu du Udalak. Ondoren, txosten bat egingo dute eta etxebizitza horretan bizi diren pertsonen emango diete. Txostenean «gabezia nagusiak zein diren eta nola ekidin daitezkeen» azalduko dute.

Familiak aukeratuko dute sistema nahi duten ala ez
Familiak erabakiko du suteak hautemateko sistema ipini nahi duen edo ez.

Erabakia baiezkotzea bada Udalak bere gain hartuko du etxeko segurtasuna bermatuko duten detektatzaileak jartzeko kostua. Neurri honekin, udal arduradunek, «mota honetako istripuen sorrera ezabatu» nahi dute.

Txelo Romeok, Ibarrako alkateak, neurri honen helburua «ibarraren ongizate maila handitzea eta 65 urtetik gorako pertsonen eta ezintasunen bat dutenek osatzen duten gizarte-talde ahulago horrentzat kalitatezko zerbitzu du prest edukitzea» dela argitu du ohar baten bidez.

Urteroko Larresoroko irteera, igandean

Leaburu-Txarama

Ote Lore elkarteak 25 urte betetzen ditu aurten eta beraiekin ospatuko dute data berezia.

ERREDAKZIOA

Urtero bezala aurtengoan ere Larresorora joango dira Leaburu-Txaramako bizilagunak. Ote Lore elkarteak aurten 25 urte betetzen ditu, gainera, eta igandea, hilak 26, beraiekin emango dute «herrien arteko harremana sendotzeko».

Autobusa egongo da, urtero bezala

Autobusa antolatuko dute bertaratzeko; 09:45ean aterako da Txara-

matik eta 10:00etan pasako da Leaburutik. Bazkaria ere izango dute, beste hainbat ekitaldiren artean, eta 20 euro balio du. Hauxe da menua: meloia eta xingarra, bildotxa, ardi gasna, udare tarta eta kafea.

Joateko asmoa dutenek etzi baino lehen deitu behar dute 638 889 163 (Nagore) telefono zenbakira.

» EGITARAUA

- **12:00.** Zuhaitzaren landaketa eta 25. urteurrena ospatzeko aizkolariak.
- **13:00.** Zintzur bustitzea.
- **13:30.** Bazkaria.
- **18:00.** Talo jatea eta erromeria Holako taldearekin. Bertsolari gazteak ere izango dira: M. Irigoyen, T. Elosegi, B. Luku eta B. Hirigaray.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Kirol ekipamentuak diruz laguntzeko eskatu dio PSE-EEK Aldundiari

Tolosa » Duela egun batzuk hartutako erabakia berriro eztabaidatu eta Tolosako kirolguneei laguntzeko eskatu dute.

ERREDAKZIOA

PSE-EE alderdia ez dago ados kirol ekipamentuentzako diru laguntzen inguruan Gipuzkoako Foru Aldundiak hartutako erabakiarekin. Hori dela eta, gaia berriaz aztertu eta Tolosako kirolguneei laguntzeko eskatu die.

Duela egun gutxi, Foru Aldundiak jakitera eman zuen Tolosa ez duela 2008-2011 bitarteko kirol proiektuen inbertsio planen artean sartuko. Honen ostean, Nerea Sayavera PSE-EE alderdiko batzarkideak erabakia kritikatu zuen eta nabarmendu, kirol azpiegiturak hobetzeko eta eraikitzeko, instituzioen arteko lankidetzak duen garrantzia. Bere hitzetan «garrantzitsua da instituzioen arteko esfortzuak batzea, eta gehiago, gaur egungo egoera ekonomikoan, non udalek izugarriko malabareak egiten dituzten proiektuak eta ekimenak aurrera eramateko».

Iñaki Galdos, kiroltako diputatuaren lana ere kritikatu dute al-



Usabal kiroldegia eta Berazubi estadioari diru laguntzarik ez ematea erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak. I.E.

derdi sozilatzaileek. Honek, diru laguntzak, «berak nahi bezala banatzen» dituela dirudiela diote. «Irizpide falta» dagoela esaten dute, eta «ulertu ezinezko kontrol gabezia». Bestalde, Galdosek emandako argudioak aipatu zituzten, non diputatuak zioen, ezinezkoa zela jada diruz lagunduta zegoen ekipamentu batean esku-hartzea. Baina PSE-EEkoek honen inguruan argitu nahi izan dute, «Usabal kiroldegiko roko-

dromoak eta Berazubiko estadioak ez dutela laguntzarik jaso fondo foraletik».

Sayavera batzarkidea ziur dago Tolosa herritarren eta kirolari emandako bultzadaren erakusleho bilakatu dela. Hori dela eta, gizartearen eskaerei erantzuten dien diru laguntzei garrantzia handia eman behar zaiela adierazi du. Honetaz gain, uste du, Foru Aldundiaren inbertsio plana txikiegi geratu dela, Gipuzkoak dituen be-

harren aurrean. Behar hau, neurri batean «Zapateroren Gobernuari esker asetua» dela gehitu du. Oria ibaiko presa puzgarria ere izan du hizpide. Milioi bat eta erdi euro inguru eman ditu Espainiako Gobernuak hau eraikitzeko urte honetan zehar. Halaber, Foru Aldundiari bere garaian, hau eraikitzeko dirua eskatu omen zioten Tolosakoek, baina honek erantzuten ez zuen. Udalak erabaki zuen Zapatero Plazaren bitartez finantzatzea.

Landa turismoari lotutako argazki lehiaketa antolatu du Nekotsek

Gizartea » Eskualden ostatu hartzen dutenei zuzenduta dago lehiaketa; Tolosaldeko Landa Turismoa da gai nagusia.

ERREDAKZIOA

Udan bisitariz betetzen dira Tolosaldeko nekazal turismoak. Gure inguru berdeak ezagutzera etortzen dira, eta paisaiak gozatzera. Hau ikusita, ekimen berezi bat antolatu dute Nekots elkarteek. Hala, Tolosaldeko Landa Turismoa Argazki Lehiaketa egitea pentsatu dute. Argazkilaritza gustuko duen orok bertan parte hartzeko eta sari ederrak eramateko aukera izango du. Lehiaketa hau, eskualden ostatu hartzen dutenei luzatua dago.

Edozein motatako argazkiak izan daitezke, baina ondorengo gaiarekin lotura izan behar dute, Tolosaldeko Landa Turismoarekin hain zuzen ere. Bestalde, izena eman duen pertsona horrek berak ateratakoak izan behar dute argazkiak.



Landa turismoarekin lotutako argazkiak aurkeztu behar dira. E.MAIZ

Lehiakideek izena jarri behar diote ateratako argazki bakoitzari, baita egilearena ere. Hauek posta elektronikoki bidali behar dira, ondorengo helbidera: gurelehiaketa@yahoo.es. Irabazlea nor den erabakitzeko Nekots elkarteek osatuko dute epaimahaia.

Bi sari egongo dira, bata irabazlearentzat, hau da, argazki onena

ateratzen duenarentzat, eta bestea, parte hartzen dutenen artean zozketatuko dena. Biek ere, eskualdeko produktuekin osatutako saski bat jasoko dute. Hauek Gabonetan banatuko zaizkie, beraien etxean bertan.

Saritutako lanak Nekots elkartearen Fotokaren parte izango dira. Lehiakideek euren lanak edonon erakusteko baimena eman behar diote erakundeari inolako eskubiderik kobratu gabe. Bestalde, argazkiak ez dituzte itzuliko.

Argazkiak bidaltzeko epea irekita dago, eta urriaren 15era arte luzatuko da hau. Gero, hil horretan bertan, 20an, emango dituzte irabazlearen izenak, Nekots elkartearen bertan.

Laburrak

Pilota eskola sortzearen inguruan hitz egiteko bilera

ZIZURKIL » Bihar 19:00etan bilera egingo dute Zizurkil Goiko Iriarte etxean, datorren ikurturtera begira Pilota Eskola sortu nahi dutelako. Bertara gonbidatuta daude pilotaren inguruan interesa dutenak, eta bereziki jolasten aritzen diren hurren gurasoak. Orain arte Zizurkil-en Eskola Kirola programaren barnean aritu izan dira haurrak pilotan jolasten, baina Pilota Eskola sortuz gero, infantiletatik aurrera ere herrian pilotan aritzeko aukera izango lukete gaztetxoek, Zizurkil-en izenean jokatuz.

Euskal Jaia antolatzeke bilera izango da gaur

ANOETA » Euskal Jaia antolatzeke bilerara deitu dute jai batzordekoek gaurko. Bilkura 19:00etan izango da, udaletxean. Herriko taldeei eta herritar orori gonbidatzen die te bertan parte hartzeko.

Mendiaren inguru argazkiak ari da biltzen Aizkardi

AMASA-VILLABONA » Herritarren mendi afizioari buruzko ihardueren bilduma bat egiteko asmoz, mendizaleen argazki, diapositibak eta dokumentazio berezia biltzen ari dira Aizkardi mendi elkarteak. Hala, hilaren bukaerara arte materiala jasotzen jarraituko dute elkartean (Larrea Auzoa 18B). Etzi, 20:30etik 22:00etara egongo dira. Bestalde, 620 55 49 37 telefonora deituta ere jar daitezke interesatuak harremanetan.

Kataluniar Pirinioetara joateko aukera Oargirekin

TOLOSA » Datorren astebururako mendi irteera antolatu du Oargi elkarteak. Hilaren 31n aterako dira Tolosatik eta abuztuaren 2an itzuli. Oraingoan, Kataluniar Pirinioetara joango dira. Bertan dauden, Els Encantats (2.748 metro) eta Peguera (2.982 metro) mendiak igoko dituzte. Interesatuak alde aurretik izena eman behar dute 688 69 86 42ra deituta edo info@oargi.org webgunean hilaren 27a baino lehen. Bestalde 20 euro sartu behar dituzte 3035 002811 0281141038 kontu korrantean.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Sarrerak.** Uztailaren 28an Mardilen izango den Eagles taldearen kontzerturako bi sarrera salgai. Interesatuak deitu 678 77 6310 zenbakira.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraledea: 687 410 032. ibarraledea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzaldeia: 687 410 118. leitzaldeia@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Erakusketak

- **Hernialde.** Maider Oviedoren argazki erakusketa izango da ikusgai herriko ostatuan.
- **Tolosa.** Karlos Irazuren *Kolpez Kolpe* eskultura eta egurgintza erakusketa eta *Pelex* artistaren *Hotses Hots* eskultura erakusketa Aramburu Jauregian.
- **Tolosa.** Itziar Albisua zumarra-gatarraren koadroak daude ikusgai Lanbroa tabernan, hilabete bukaera arte.

Deialdiak

- **Amasa-Villabona.** Mendizaleen argazki, diapoak eta dokumentazio berezia biltzen ari da Aizkardi mendi afizioari buruzko ihardueren bilduma bat egiteko asmoz. Uztailaren bukaera arte materiala jasotzen jarraituko dute elkarrean (Larrea auzoa 18 B) uztailaren 23an, 20:30etik 10:00etara edo 620554937 telefonora deituz.
- **Tolosa.** Udako liburutegia Usabal igerilekuan, astelehenetik larunbatera 15:00etatik 19:00etara bitarte.
- **Tolosa.** Abuztuaren 1etik 13ra bitarte Santiago Bidea bizikletaz kostatik, Tolosatik abiatuta, kiroldegietan lo eginez eta otorduak jatetxeetan eginez. Izen-

A Agurrak



Zorionak!

Bego eta Natxo.

Ondo pasa zuen zilarrezko eztei egunean, zuen seme-alaben partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak
Mesedez,
ekarri
argazkia
bi egun
lehenago.

ematea, 687 568258 (Fernando) eta 664 129216 (Luis M.) telefono zenbakietan.

Mendi irteerak

- **Tolosa.** Hilaren 31rako Encantats-Pegueira mendi irteera antolatuta dute Oargik eta Topagunek. Informazioa, www.zazpitantrian-gulon.com.

Kirolak

- **Tolosa.** T.A.Kek arraun ikastaroa antolatuta du abuzturako. izen-ematea, 943 536400 telefono zenbakian.

Zinema

- **Tolosa.** Aste honetako eskaintza: *Ice age 3* filma Leidor aretoan hilaren 24 eta 25ean, ostiralean eta larunbatean, 19:30ean eta igandean 17:00etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearrena, M. Amaia kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



harpidedun izateak badu saria

① 2 lagunentzako egonaldia

Atxaspi hotelean

asteburuko egonaldia gosariarekin

Bittiria 24, 31770 Lesaka (Nafarroa)
tel.: 948 637 536



② 2 lagunentzako otordua

Elketa jatetxean

Hernialde (Gipuzkoa) • tel.: 943 65 39 92



③ 4 diskoz osaturiko sorta

baga-biga
disketxearen eskutik



④ HITZako materiala



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza info